




↑ *Telenouvelle Basque tailerra, Artelekun.* [Aitor Bengoetxea]



**Fran Ilich**  
dept@fiction.de



Mexiko Hiriko Goethe Institut-eko tailer batean gaude, kontua da telefono mugikorrez film labur bat sortzea, eta ikasleetako bat naiz. Data gaur izan daiteke, edo joan den astea, baita duela hamar urte ere, baina errealitatean egun hauetan gertatzen da. Ez da kontzentratzen garelako, ez asko ez gutxi, telefono mugikorrez filmak egiteko teknologian, ez horixe. Istorioak kontatzearen auzi zaharrea zentratu gara, eta lehen astea errutinazkoa da, zortzi ordu egunero ideiak garatzen, gidoiak idatzi eta eztabaidatzen, eta istorio bat kontatzera bultzatzen gaituzten ikuspuntu eta interes desberdinez eztabaidatzen; eta pixkanaka, mingarriro, ulertuz eta onartuz goaz halako obsesioz kontatu nahi dugun «hori», halako atxikimendua sortzen digun hori, ez dela istorio bat, ezta hurrik eman ere, baizik eta ozta-ozta sentimendu bat, zirriborro bat, pertsonaia bat eta egoera bat; abiapuntu bat bai, baina oso gutxitan istorio bat. Prozesu hori sarri askotan terapia psikologiko bilakatzen da ikasleentzat; gogora datorkit kolonbiar emakumezko argazkilari bat, buru bakoitza mundu bat dela (*as if*) eta zahar-etxeetan dagoen jendea istorioez beteta dagoela dioena, baita nola Till Passow-k, tailerra zuzentzen duen zinemagile alemaniarrek, galdetu dion zehazki non dagoen istorioa, berak ez baitu ikusten. Edo nola emakume kolonbiarrak hitzordua izan nahi duen bere mutilagun-ohi frantziarrekin, falta handian botatzen baitu, galderak egiteko, mutilak bihotza ireki dezan kameraren aurrean, publikoa garen aldetik ez interesatu ez seduzitzen ez gaituzten galderei erantzutean: berataz pentsatzen du orain, jada elkarrekin ez daudenean? Zorionsua al da? Zer pentsatzen du heriotzaz? Zergatik moldatu ahal izan ziren fisikoki, baina ez emozionalki ez mentalki? Zergatik alde egin zuen? Edo mutil hori, Mexiko Hirira herri urrun batetik iritsi berritan hiria nola prozesatu ez dakien arrosa-saltzaile bat erakutsi nahi duena. Zer egin emakume horrekin? Nola edo hala, mutil horrek (ikaslea, aktorea, zinemagile-

gaia) neska arrosa-saltzailearen bere ideiaz haren jarrera bera erakusten du: ez daki nora joan bere gidoiarekin. Eta Till berriro galdezka: Baina non dago hemen istorioa? Ez dut inon ikusten! Eta pentsatzen dut gazta saltzen dituzten menonita intzestuzaleez, duela 300 urte europar modernotasunari uko egin eta teknologiarik gabe bizitzera joan zirenak Amerika izeneko mundu berri bateko landetxe urrunetara; horiek kaleetako semaforoetan daude, hiriak ez ditu batere hunkitzen, haren kaos aurreratua mespretxatu egiten dute, batere aintzat hartu gabe, 1996ko kontsulta zela eta Mexiko zeharkatu zuten zapatista haiek bezala, honako hau esaten baitzuten: «ezinezkoa da indioi dagokigunez hain aurreratuta dagoen herrialdea izatea hau. Hori bihurtu nahi al gaituzte?».

Pixkana-pixkana, tailerraren barruan, elkarrizketan harrapatuta, orduetan barrena batzuk besteen isla bihurtzen gaituen ispilu-jolas batean galtzen gara behin eta berriz. Batzuetan sinesten hasten naiz errealitatea konplexua dela eta geruza asko dituela, eta buru bakoitza mundu bat dela. Hala eta guztiz ere, topiko sarri horretan ez erortzen saiatzen naiz.

Argi dago gerrak ispiluen bidez eta hitzen bidez irabaz daitezkeela, eta Malintzinek Cortési emandako hizkuntza alorreko laguntzarik gabe, agian inbaditzaileak betiko geratuko ziratekeela *lost in translation*. Jarraian, konkistatzaileak garaituek beren hizkuntza ikas zezaten arduratu ziren, hitz egin zezaten, uler zezaten eta hartaz pentsa zezaten, eta gainera hartaz mintza zitezen, hartara mundu ikuskera menderatzailea ezagutu zezaten eta isiltasunez eta soinuez hura ikasi eta atzeman zezaten. Hau da, beraiek eraikitako eta lehenagotik menderatutako hizkuntzaren egitura auresangarrietan mugatuta gera zitezen. Hori da erabiliena, klasikoa. Globalizazioaren zutabe nagusia. Nahitaezko protokoloa. Horrela bakarrik menderatzen duzu besteren gogoia,

sedukzioaren eta errepikapenaren bidez. Kolonizatuek zure kontzeptuak adieraziko dituzte beren hitzez (haiek ez badakite ere, zureak direnak), beren ideiez eta hizkuntzaz (sistema eragile moduan jardungo du hizkuntzak, eta sistemak –zure sistemak– behar duen bezala funtzionatzen jarriko ditu). Ondoren datoz sinesmenak, erlijioa, desirak, eta hori edukita gainerakoa berez dator. Betiko daude galduta ispilu-jolas batean: telebista ikusten eta desiratzen eta lan egiten sekula ezin izango diren, ezta jabe izaten bukatuko duten zerbaiten alde.

Bada esaldi bat euskaraz, izena duen orok izana duela dioena, eta batzuk sinetsita daude gauza bat izan dadin aurrena izendatu egin behar dela, enuntziatu, lurrera jaitsei ideia gisa, eta horrela bakarrik existitu ahal izango dela: osterantzean, mugatuta egongo da ikusezinen mundura, ulertezinenaren, existitzen ez denaren eta eskizofrenikoen eta eroek soilik ikus dezaketenen mundura mugatuta.

Edo, Marcos Azpikomandanteak indioen inguruan esan zuen bezala: «Geure burua erakustearren mozorropean ezkututzen gara, eta ezkutatzeko mozorroa erantzten dugu».

Beti egon ziren hor, eta inork ez zituen ikusi nahi, bisaia estaltzean bakarrik bereganatu zuten aurpegia: matxinada bakun, isil eta xume baten aurpegia. «Ikus gintzaten, aurpegia estali behar izan genuen, zeren eta desestaltita generaman bitartean animalien modura tratatu gintuzten eta ez zieten inoiz gure eskakizunei jaramonik egin». «Denak pertsona bera garela esan nahi du, eta bat erortzen bada beti egongo dela gutako bat buruko estalkiaren atzean aurrera egiteko, eta hartara etsaiak ezin izango gaitu ezagutu, ezta gure senideak zigortu ere».

Ez ezagutu ahal izatea, ez ulertzeko gai izatea: komandante zapatista guztietatik, mestizoak eta zuriak bakarrik

daude gobernu gaiztoaren atxilotze mehatxupear; gainerakoek jarraitzen dute ikusezinak izaten, esplikaezinak, ulertezinak, burubakoak, zaporegabeak; hitz bakar batean: indioak. Indio horiek ziur aski obeditu besterik ez ditu egiten konspiratzaile zuri baten aginduak, hark manipulatu egiten baititu bere odol, garbitze eta iraultza ametsa gauza dezaten. Indio horiek, bestelako azalpenik gabe, mendebaldeko zenbait hitz-kontzeptu ez dituzten hizkuntzetan mintzatzen dira, eta kristauaz hitz egitean halako zabarkeriaz mintzatzen dira, non argi geratzen baita ez dutela ezertxo ere ulertzen.

---

Till Passowk, bere begi desberdin, kanpotarrez, guk ikusten ez ditugun istorioak ikusten ditu. Eta, hala ere, nik nahiago nuke bulegarien istorioak kontatzea prostituta azteken edo metroan harrapatuta bidaiatzen duten zombienak baino. Baina haren begiek osatu egiten dute nik hemen ikus dezakedana, eta azkenean trailer bat egitea erabaki dut; gaia 2010ean iritsiko den iraultza indigena da, orduan ospatuko baita mexikar independentziaren bigarren mendeurrena, iraultzaren mendeurrena eta denboraren amaieraren inguruko mayen profeziak.

---

Mexiko Hiriko tailerra egin baino aste batzuk lehenago Donostiara bidaiatu nuen Artelekun tailer bat ematera. Donostia esaten diot hiriari ez diodalako San Sebastián esan nahi. Beti galdetzen diot nire buruari bata bestearen itzulpena ote den. Euskaraz San Don ote den, eta Ostia Sebastián. Beti esaten didate ezetz. Eta gogoan dut nola, Cindy Flores ziberfeminista mexikarra eta biok Civilization 3 jokoan ari ginela, Donostia izeneko hiri bat fundatzen nuenean (joko horretan ari naizenean ia beti aukeratzen dut spanski zibilizazioa) hura barrez

lehertzen zela, suposatzen baitzuen, uste baitzuen, espainiar biraoez barre egiten ari nintzela... Don Hostia izeneko hiri bat, ez dago hori baino gauza barregarriagorik. Baina ez, egun batean serio hitz egin genuen auziaz. Frogatu behar izan nion ez zela nire txantxa bat. Galdera bera egin zuen hark ere: San Sebastián euskaraz Donostia al da? Uste dut ezetz, esan nion, baina hala ere ia hiri berdina dela esan daiteke: hau da, berbera, baina aldi berean guztiz bestelako bat, zein hizkuntzatatik pentsatzen duzun. Edo hori uste dut nik, espero dut ez egotea larriki *lost in translation*. Eta nori galde diezaioket hori? Espainiar bati, euskal herritar bati, donostiar bati, San Sebastiánen jaiotako norbaiti? Edo menturaz kanpoko epaile objektiboa behar ote dugu, ispilu-jolas horretan harrapatuta ez dagoena eta inolako inplikaziorik ez duena espainiar estatuari (espainiar inperioari) dagokionez?

Tira, kontua da Artelekuko egitekoa telenobela generoa arazo bihurtzea zela, batez ere *telenouvelle vague* delakoa, euskal kulturaren inguruan saio orijinal bat ekoitzita: mexikar telenobela melodrama herrikoi politiko batera itzultzea, euskal gizartearen korapilo eta hariak narratzeko. Jarraian etorri zena ezin proposamena baino leunagoa izan: donostiar pare bat, hogeita koska eta hirurogeita koska urte artekoak, kulebroiarentzako hariak proposatzen, era guztietako gauzak bertan sartuta: zer den gutxiengoaren aldeko jarrera, zerk funtzionatzen duen, zer egin behar den, zer esan nahi duen pertsona bat espetxetik irteteak adierazpen politikoak egiteagatik itzalean 30 urte eman ondoren, edo alkate bat espetxeratua izateak hitzez kondenatu ez izanagatik zinegotzi baten hilketa. Eta amaieran, sinfoniaren idazketa kolektiboa bukatu ondoren, Maider Zilbeti azaldu zen itzulpenarako arazo berri batekin: eta telenobela horren eszenaratzea antzezle mexikarrekin egingo balitz, euskal antzezleekin egin beharrean? Niretzat horrek bazuen zentzua,

bestarik ez bada ere ea drama esplika zitekeen beste larruazal kolore baten subjektibotasunetik; eszenaratze horretan euskal paisaien fotogramak agertuko lirateke, eta antzezle beltzaranak tragedia abertzalearen gertaerak antzetzten, eta eszenatokia fikziozko adreiluek osatuko lukete, *Garzón* epaileak errealitatea moldatzeko erabiltzen dituenak. Errealitate hori moldatzeko. Haren errealitatea. Gerra horretan jarraitzen dute borrokatzen entretenimenduaren bitartez, medioez, erlijioaz, bai armen bidez ere, *military-entertainment complex* delakoaren gisara: irribarre egiten eta zauritzen... Ordea, mayek esana zuten beren ispilujolasean: ni zu naiz, eta zu ni zara.

Beste mundu bat benetan posible bada, saia gaitzeko hura idazten, planeatzen idazlumekin, stylo kamerekin eta html-kin. Eta faktoreak alderantzikatuz, istorioak kontatzeko egitura berriak eraikiz, eta betiko aktore eta istorioekin erlazio berriak eratuz (literaturak dioenez, ez dago ezer berririk eguzkipean), gure gizartearen errealitatea hackeatu eta aldatu dezakegu: aipamen narratiboaren bidez, taldeko eta bakarkako istorioen egituraren bidez, remixaren eta ausazkotasunaren bidez eta estrategia posible guztien bidez: honelako zerbait: aipatu ezazu lehenik, adierazi ezazu gero, pixkanaka errealitate bihurtuko da, *self-fulfilling prophecy*.

Beste narr@tiba bat posible da. ♦